

IRAKASLE-MASTERRA

UEUk internet bidezko eskaintza murritzari erantzun nahi dio

UEUk 120 plaza eskainiko ditu eskari handiena duten hiru espezialitateetan. Jakitun dira euskarazko eskari osoari erantzuteko ez direla gai izango.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Masterra derrigorra dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakasleek, eta hizkuntzen irakasle izango direnek. EHUK euskaraz eta aurrez aurre egiteko aukera ematen du. Mondragon Unibertsitateak baditu plaza batzuk internetez eta euskaraz. Internetez eta euskaraz egin nahi duen ikasle ororentzat ez dago, ordea, aukerarik. Ikasle askok gaztelaniaz egin dute masterra Espainiako unibertsitateetan, nahiz eta etorkizunean euskaraz irakatsiko duten.

UEUk EHUn zentro atxiki gisa eskaini ahal izango du Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra. Plazak beteta daude eta irailaren 19an egingo dute aurkezpena.

Eskaera handiena dagoen hiru espezialitateetan eskainiko da masterra: Giza eta Gizarte Zientziak, Hizkuntza eta Literatura, eta Natur Zientziak eta Matematika. Bakoitzean 40 plaza egongo dira. Espezialitate bakoitzean hautazko irakaskai bat egongo da, ingelesez.

Masterra internet bidez izango bada ere, aurrez aurreko hainbat saio izango ditu, baldin eta osasun egoerak eragoz-



penik eragiten ez badu. Ebaluazioak eta amaierako lanaren defentsa aurrez aurre egingo dira eta praktikak hezkuntza zentroan.

ESKAINTZAK EZ DIO ESKAERA ORORI ERANTZUTEN

Masterrak zortzi espezialitate dauzka EHUn eta aurrez aurrekoak dira, EAEko hiru campusetan, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, eskainiak. EHUK ez du internet bidez eskaintzen. UEUk abian jarri duen masterraren arduraduna da Aitzol Astigarraga eta berak adierazi digu internetez egiteko eskaria eskaintza baino handiagoa dela: "Irakaskuntza ikasketak bukatu berri dituztenek zuzenean masterra egiten dute eta ohikoa aurrez aurreko

modalitatea aukeratzea da. Gaur egun ordea, jende helduak, bestelako lan batean ari denak ere, bestelako ikasketak egiten ditu eta batzuek master hau egin nahi dute. Lanean ari direlako edo kontziliazio kontuengatik ezin dituzte aurrez aurreko eskolak hartu. Horiek internetera jotzen dute. Euskaraz eskaintza oso murritza da, Mondragon Unibertsitateak ditu plaza batzuk. Beraz, askok masterra gaztelaniaz egiten du Errioxako edo Valentziako unibertsitateetan, adibidez. Gaztelaniaz egiteaz gain, hemengo curriculumaz ez dute ikasten, eta gero hemen izango dira irakasle". 120 plaza gehiago izango dira hemendik aurrera masterra euskaraz egiteko, nahiz eta jakin badakiten eskari osoari erantzuteko moduan ez direla. ●

BABESLETA:

